

SUAREN AURKA ZER EGIN JAKITEAK BIZITZAK SALBATZEN DITU

ETXEAN SUTEAK PREBENITZEKO KANPAINA

SUTEA GERTATUZ GERO...

Eskaileretan kea badago, EZ IRTEN



Konfinatu zaitez zure etxebizitzan; atearak itxi, zapi bustiak jarri eta 112 telefono-zenbakian suhiltzaileei horren berri eman.

ATEA ITXI SUARI

Zure etxean sute bat detektatzen baduzu, saiatu konfinatzen, atearak itxi. Ahal baduzu, irten etxetik eta deitu suhiltzaileei 112 telefono-zenbakian.

Instala ezazu SU-DETEKTAGAILU bat zure etxebizitzan

Su-detektagailuek BIZITZAK SALBATZEN DITUZTE.



ETXEBIZITZATIK IRTETEKO AUKERA BADUZU ETA ESKAILERETAN KERIK EZ BADAGO

Etxebizitzan bizi diren guztiak irteten direla ziurtatu.

Ez entretenitu inolako gauzarik hartzen. Atera soinean duzunarekin.

Itxi etxeko atea.

Irten kalera eskailerak erabiliz soilik.

Ez erabili inoiz igogailua.

Profesionalek hala adierazten dizutenean bakarrik itzuli ahal izango zara etxera.

Gainean baldin badituzu, eman etxebizitzako giltzak suhiltzaileei.

EZIN BAZARA ETXEBIZITZATIK IRTEN

Kea eskaileretara iritsi bada, ez irten, gelditu etxean.

Itxi atearak eta estali zirrikituak eskura duzun edozein jantzirekin (hobe busti ahal baduzu).

Joan zaitez ondo aireztatutako gela batera. Urrundu ketik eta sutetik.

Etxe barruan kea badago, katuka ibili edo mugitu ahalik eta makurren, estali sudurra eta ahoa oihal batekin (hobe bustita badago).

Kanpotik ikusteko moduan jar zaitez, suhiltzaileek non zauden jakin dezaten eta erreskatera joan daitezten.

Sua fatxadatik igotzen bada: itxi leihoak, altxatu pertsianak eta kendu errezelak. Ahal bada, kristalak urez freskatu.